

**FORUAKO HARROBIAREN INGURUAN ETA AIPATUTAKO HARROBIAN  
2005EKO URRIAREN 24EAN EGONDAKO KONTROLIK GABEKO LEHERKETEN  
AURREAN ZAIN DEZAGUN URDAIBAI ELKARTEAK EGITEN DUEN  
BALORAZIOA.**

Foruako Urberuaga auzoko auzotarrek egiten duten salaketa inolako ingurumen- eta giza-ikuspunturik gabe ustiatutako harrobiaren adierazlerik onena da. Lege desberdinez babesturiko eremu honetan, praktikan, aitabitxi-amabitxi onak edo meagintzan eta ingurumenean eskumenak dituzten administrazioetan kontaktu onak izanez gero inolako eragozpenik gabe arauak hautsi egiten direla edo ez direla betetzen begibistako da.

Harrobi hau, 60. hamarkadatik 2003. urterarte guztiz legez kanpo aritu izan da lanean, ez baitzuen meagintzako, uren babeserako eta, are gutxiago, Urdaibaiko legedirik -harrobiaren mugak zeintzuek ziren ezartzen zuen 1998an, halere, oso epe laburrean ezarritako mugak gainditu eta babes bereziko eremuan sartu zen- betetzen. Horrela izan arren eta behin eta berriro AUZOTARREK ETA ELKARTE EKOLOGISTEK salatu arren arestian aipatutako administrazioek ez dute ezer egin Foruako mazizo karstikoan, artadian, udalerrinari ura ematen dion ur putzuan, aztarnategi arkeologikoetan edo eta bertan sortutako hautsek, harriek, zaratek eta leherketek bertako eta inguruko herritarrengan duen eragin negatiboa geldiarazteko.

1993.ean, ustiaketa bertan behera uzteko akordioa lortu zuten Udalarekin, baina harrobia ustiatzen ari zirenek ez zuten bete hitzartutakoa. Gainera, lurrazpiko akuiferoan zulatu egin zuten 25 kotatik behera, 14 kotaraino. 2003.ean, legez kanpoko lanagatik eskerrak emateko, eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zaingo-Batzordearen lan onari esker EKEGn xedapen gehigarria sartzea lortu zuten. Xedapenean, beste 39.000 m<sup>2</sup>-ko azalera eta 2 milioi m<sup>3</sup> kareharri ateratzeko baimena eman zieten, URDAIBAI BIOSFERA ERRESERBAN BABES BEREZIKO EREMUAN kokatuta egon arren, eta ustiaketa bertan behera uzteko eta orain arte SUNTSITUTAKO GUZTIA LEHENGORATZEKO ezinbestekoa zela argudiatuz; hau guztia, Biodibertsitate Zuzendaria, Anton Aranburu Jauna zen garaian.

Gogoratu behar da Urdaibaiko artadia eta bere ibai-sarea Europa Batasuneko NATURA 2000 SAREKO "LIC" moduan dagoela onartuta. Hori dela eta, Europa Batasunean kexaren bat aurkeztu ala ez aztertzen ari gara. Era berean, Urdaibairen edian kokatuta dagoen eta guztiz legez kanpoko den harrobia martxan egotea baimendu zuten eta egunean baimentzen ari direnei ardurak eskatuko dizkiegu.

EAE-ko harrobiak ustiatu eta hormigoia egiten dituzten lobbyen aurrean Eusko Jaurlaritzak erakusten duen sumisio-mailaren adierazle baino ez dira auzokideak salatu dituzten leherketa hauek. Honek, beraz, argi uzten du Busturialdea BILLETERRAREN ERRESERBA dela eta ez, inondik inora, BIOSFERAREN ERRESERBA.

**ZAIN DEZAGUN URDAIBAI  
Busturialdeko Garapen Eusgarrirako**

**Auzo Elkartea**  
**Urdaibaiko Biosfera Erreserba**  
**Bizkaia Euskal Herria**